

# IKUSTEN DEZU GOIZEAN...

(*Elissamburu olerkari mendigoizalea*)

POR MATXIN LABAYEN

Parisen dagon Joxe Antonio lagun zarrari biotz biotzez.

¿Nork ez du entzun abesti ariñ, pozgarri, goxo, au?

¿Nork ez du abestu abesti paketsu, goxo, apal au?

Nere ustez gutxi batzuek besterik ez. Ala ere ba al dakizute nor izan zan bere asmalaria? Elissamburu-Saratar olerkari— gudaria. Ta ba al dakizute nola sortu zan abesti au? Entzun ba da pena balio du ta.

Ixtori au egia dan edo ez dan —ez dakit— bañan neri baserritan batek esan zidan bezela —kontatuko— edestuko dizuet.

Gure Elissamburu —itzuli da Sara'ra— gudakin nazkatuta —aspertuta edo— obeto damutua —ainbeste astekeria ikusiaz— Lenbizi Italia'n gauza— ondo joan zan— bañan gero Alemandarrak bai Prantzesak zapaldu— ta Pariseraño iritxi. Napoleon III Frantziko agintaria— bai azkar erori. Bañan Jainkoari eskerrak— Alemandarrak ez dira Sararaño iritxi.

Ara orain ba, Saran— (munduko erririk politenean) gure gudaria— jantzi gorro ta urdiña utzita— (Munduko jantzirik politena) Epaille (Juez de paz) biurtu. Gudako paper ori orde— Pakezko paper zuriak!

(Ala ere Epaille guztiak ez dira pake zaleak noski) Ez da ori ofizio txarra. Justizia egitea ez da errexa— bañan okerragoa guda egitea. Denbora libre asko du. Zer egin? Auxen galdera ñañarra! Sara'n zer egin? Ba mendir joan— bere izkiñ, alderdi—, zoragarriak ikusi-bein eta berriz, bañere aspertu gabe— bere ikuskizuna- rekin alaitu—.

Ain ederra da Sara! Saratik Zerura? Ez Zerutik Sarara.

Eta Olaxen egiten du gure Elissamburuk. Mendi aldera bota— egunero— al dun maiz. Mendi— irudi— aize garbi— urrezko eguzki— txorien kanta gabe ezin bizi. Bere lekurik mañtagarriena ez al da Sta Barbara pago baso zoragarria izango? Leku paketsu artatik mundu guztia ikusten da. Eta olaxen— ibilaldi ospetsu oietan— ibilaldi guztiak ospetsuak dira— askotan ezertarako ez dutelako balio— ara «Ikusten dezue goizean jaio. Lenbizi gudari galtza gorri— gero Epaille et a orain— oler— kari mendigoizale! (ez dira ugariak, benetan Epaille bertsolariak—!)

Sempere bidean gertatu zan— tontor borobil— borobil baten gañian— udaberri goiz eder-argitsu— garbi gazte batean. ¿Zer ikusten zun an goitik gure Elizamburu ameslariak?

Ez da zailla asmatzia—. Aurrean— baserri txurik— kapera txikika— bidetxo ori— gorria— zelai orlegiak milla kolorezko lorez josiak— ta urranean— urdintuak— goiz dirdiratsuan— Artxuri (Peña Plata) Larrun Txiki— Larrun Aundi— Olain— Ibanteli— Tontorran— garo usai gozoa—. Ta olaxen, bat batez— biotza zoratuta— asi zan Elissamburu— xamur xamur— ia ia pozez negarrez— bertsoak botatzen— txoria kantatzen asten dan bezela. Ta asi zan bertsoak botatzen biotz biotzetik— egizko artistak bezela.

Ikusten dezu goizean

Argia asten danian menditxo baten gañian

Etxe txikitxo— aintzin jolita

Lan aitz ondaren artean.

Iturriño bat aldean— txakur txuri bat atean antxen bizi naiz ni bakean.

Bateon batek— esango du nodki— bertso oiek irakurrita gero—.

«Bertso kaxkar oeik— merezi al dute ainbeste lana— Kaxkarrak ez dina— zer izango dira— ez dago artista txarrik— obeagoak ba daude noski bañan zailki arkituko dira ain sakon— ain goxo ain gizakiak. Ta Artista lenbizi gizona da. Bai— adixkide— Elissamburu «Ikusten dezu goizean— merezi du lan au— bai ta ere obeagoak.

Elissamburu ondo ulertzeko— sar gaitzen— mamitu gaitzen Elissambururen berso barnean— itxurak— jantzia alde batera utzita. Zer abesten du Elissamburuk bertso oietan? Abesten ditu gizonak dauzkan izaki-gauzarik sakratuenak— Etxea— (Bere sor— lekua— naiz ez izan gaztelua).

Emaztea— bere abereak— lan tresnak— bizi paketsua— bizi paketsua (Pindarogrezitar idazleak dion bezela— Pakea da errien salbazioa). Ori bakarrik? es noski— asko izan arren.

Elissamburuk bere bertso oietan— zein bertso alaiak diran— zaintzen du jostaketan— gizona— gizonki bizitzeko— gozartzeko eskubidea— gizonak orren gutxi balio dun era ontan.

Zaintzen du ikuskizuna— gaur ondatua— bere eder— polit izateko eskubidea bere bere bizia izateko eskubidea. Ez al de Paisajea izaki bizi bat?

Ez zan ergela ez Elissamburu— Goiz txuri usaintsu artan— urruti ikusi zun— Artxuri— Larrun— Olain— Ibanteli— mendi urdiñak baño urrutiago. Ikusi zun— Euskalerri bat— baserri txuri aundia— erreka ondoan-zelai orlegui batean gordea— libre— alkartuta— alai— ikusi— zun oraindik geiago— biarko Europa paketsua— eta Europa ortan— denak-arrialde aundi ta txikiak alkartuta-lanean libre— zuzen-bidean.

Arrazoiakin esan liteke— Elissamburun ixtorioa egia ez bada ere— (1) egia ez bada ere merezi du izatea— alai— polita— mamitsua dalako gure gurea dalako— Sarako tontor borobil gorritsu batean— jaio zala biarko Euskalerra— biarko Europa.

Ez da arritzekoa mendi'n sortzen diralako— bere pake ixillean bere musika ta kolore ta usai ta ots— orietan— sortzen diralako beti gentsamentu eder ta aundienak— eta ez gutxietan gudari damutuaz!

Gora ba Elissamburu ez gure Olerkaririk onena— bañan bai alai— alai giza-kiena!

Tolosa, 27-5-64

(1) «omen» esango luke saratar batek— alegia— Mari Luis «Kapet» amona ospetsuak—.